

Euskal Herriko Ahotsak  
ahotsak.com

*Luis Mari Iriondo Garate*

*Elgoibar,  
Gipuzkoa  
(1931-2020)*

Aurkibidea



## Biografia



Luis Mari Elgoibarren jaio zen 1931. urtean. Aita, Jose Mari Iriondo, Alzolakoa zen; ama, Maria, zestoarra eta sukaldari bikaina. Zortzi urte zituela, elizako koruan tiple moduan hasi zen eta hortik sortu zitzaion musikarengatik zaletasuna. Herriko bandan klarinetea eta txistua jo zituen eta ezpata-dantzaria ere izan zen. Lehen hezkuntza egin ondoren, 6 urterekin eskola publikoetan hasi zen don Felix maisuarekin. Ondoren, beka bati esker, San Viatore anaiekin ibili zen El Pilar ikastetxean. Bere asmoa ikasten jarraitzea bazen ere, 13 urterekin Arana lantegian hasi zen: "pintxe" lanetan lehenengo eta aprendiz geroago. Bere burua tailerrei lotuta ikusi zuenez, Elgoibarko "Artes y Oficios" eskolan eta "Señorita Ana"ren akademian ikasketekin jarraitu zuen. Bere trebetasuna ikusiz, Sigma lantegiko bulego teknikoan lanpostua eskaini zioten eta bertan egon zen 30 urte egin eta Acmen gerente modura hasi zen arte. Acmen zegoela egin zituen enpresa-zuzendaritza ikasketak. Elkarrizketa garaian erretiratuta zegoen arren, ikasten jarraitzen zuen. Kultura zaletasun handiduna: historia, arte, musika eta zinezalea. Ez dago Elgoibarren berak parte hartzen ez duen kultura ekintzarik.

## Zintak

**EGB-073**

- **Proiektua:** Elgoibarko Makina Erremintaren Historiazaleak

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Bernabe, Ainhoa - Historiazaleak, Elgoibarko Makina Erremintaren
- **Data**: 2012-03-21
- **Iraupena**: 53 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Transkribatzailea(k)**: Elexpuru, Juan Martin

## EGB-074

- **Proiektua**: Elgoibarko Makina Erremintaren Historiazaleak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Bernabe, Ainhoa - Historiazaleak, Elgoibarko Makina Erremintaren
- **Data**: 2012-03-21
- **Iraupena**: 57 min
- **Euskarria**: Bideo digitala

## Pasarteak

### 1. Ama sukaldari eta emagin

- **Erref**: EGB-073/003
- **Iraupena**: 0:00:58. **Hasi**: 00:02:32. **Bukatu**: 00:03:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- Lanbideak » Neskameak

#### Laburpena:

<p>Amak Zestoako bainuetxean ikasi zuen sukaldari. Gero leku askotan ibili zen, aberats-etxetan batez ere. Emagin ere egiten zuen, jende asko jaio zen berarekin. Ikasteko erraztasun handia zuen amak.</p>

#### Transkripzioa

-Berari entzunda, koziñera ikasiko zaban Zestuako balnearixuan, ta gero gure denporan ya urtero-urtero juten zan Altzolako balnearixora kozinera bezela. Ta orduan etxe partikularretara, aberatsen ere juten zan, hamen Elgoibarren, Plazentzian, Bergaran..., koziñera bezela. Eta gero ezautu gendun ere, ta Elgoibarren asko daude, berekin jaxotakuak, partera bezela ibili zan. Baiña asko, ume asko jaixo zian berakin, berakin.  
 -Ta nun ikastakua zan? Bere familikoren batekin?  
 -Ez, ez dot uste. Baiña oso ikasteko zakan erreztasun haundixa gauzak ikasteko, amor propixua galanta. Asko balio zaban emakumia.

### 2. Senar-emazte musikazaleak

- **Erref**: EGB-073/005
- **Iraupena**: 0:02:28. **Hasi**: 00:04:18. **Bukatu**: 00:06:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

**Laburpena:**

Luisen emaztea oso kantari ona da. Bi urteko biloba ere bikaina dator. Luis triplea izan zen umetan. Horri esker, bizi guztirako musika-sena izan du. Ezpata-dantzaria eta txistularia izan zen gaztetan. Klarineta jotzen zuen bandan. Orain organo automatikoa du etxean eta han ibiltzen da jota ke. Gurasoak ez ziren musikazaleak.

**Transkripzioa**

-Lehen alabagatik ibili zerate, baiña abotsagatik, alabaren abots edarragatik, baiña zure emazte Elisarena ere...

-Bai, oso abots edarra. Eta ez hori bakarrikan, kanturako, lehengo kantuak eta danak, oso, belarri oso ona. Bai-bai, kanturako erraztasuna daka. Ta oin ikusten dou billoba, billoba txikixa bi urtekua. Jo, kantuan da fenomeno bat. Bai-bai, oso..., bi urtekin, e! Dakiz kantutan! Neu ere tiplia izan nitzan, e! Zortzi urtekin tiplia izan nitzan. Zergatik eze organista, Inazio Bereziartua, gure etxian bizi zan, lelengo pisuan, ta ni hirugarrenian; ta horrek berak hartu ninduen ta eruan zidan korura, ta eskerrak berari bizi guztirako geratu jatan neri, esaten dana, sentidu musikala. Eskerrak hareri, zegatik eze hasi jatan musikia gustatzen zortzi urtekin; ta itten gendun tiple ta monagillo, bixetara. Ta gero harrezkero ba beti entzuten eta abar, ezta.

-Ta musikarekin jarraituz, bandako partaide ere izan ziñan.

-Bai. Lelengo, batera, izan nitzan... Klaro, guk gaztetan, badakizu, orduan danak ibiltzen giñan parrokiyan inguruan, parrokiyan inguruan gauza asko. Eta orduan lelengo izan nitzan ezpata-dantzarixa. Geruao txistularixa. Eta batera inguru, bandan; ikasi ta klarinetia jo naban bandan.

-Badaure zure argazkixak.

-Bai. Eta gaur egunian etxian dakat organo automatikua, osea, ritmo automatikuekin. Ta han ibiltzen naiz jota keia. Baiña eskerrak tiple izanari ya betiko geratu zitzatan musikarako jarrera hori. Eskerrak hari.

-Zure aitta edo ama kantariak zien edo?

-Ez, ez. Aitta zan basarritar normal bat. Ta ama ez, ama asko kanpuan eoten zan lanian. Elgoibarko tabernetan ere lan asko ein zaban harek, beti kozinera bezela.

**3. Oso familia erlijiosoa**

- **Erref:** EGB-073/006
- **Iraupena:** 0:03:23. **Hasi:** 00:06:46. **Bukatu:** 00:10:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

**Laburpena:**

Oso giro erlijiosoa familian; fanatismotik gertu ama. Oatititik Arantzazura oinez joaten ziren ortozik, Durangotik Urkiolara ere bai. Dena dela, amaren erlijiotasunak bazuen baserriko ukitu bat; ispilua ezin zen apurtu inola ere, adibidez. Arantzazuko Ama Birjina dela eta, Luisen eta amaren arteko gorabehera.

**4. "Viva Franco, Viva Mola, Arriba España!"**

- **Erref:** EGB-073/007
- **Iraupena:** 0:03:23. **Hasi:** 00:10:09. **Bukatu:** 00:13:32

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Politika eta Franco

**Laburpena:**

Irakasletza ikasten ari den bilobak galdeketa egin zion txikitako eskolaz. Satur maistrarekin hasi zen aurre eskolan. Eskola publikoetan Roarekin gero. "Viva Franco, Viva Mola, Arriba España!" esan behar zuten eskua jasota eskolan sartzean. Maisuak etxetik janaria edo zerbait ekartzeko agindu zien. Aita haserretu egin zen, baina ematen zion maisuarentzako tabakoa.

## 5. "Bekario" marianistetan

- **Erref:** EGB-073/008
- **Iraupena:** 0:04:16. **Hasi:** 00:13:32. **Bukatu:** 00:17:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak

**Laburpena:**

<p>Zortzi urtetik 11 urtera maistrarekin ibili zen eskolan. Gero Marianistetan sartu zen "bekario" gisa, ez zutelako ordaintzeko dirurik. Bizi guztirako lotsa izan da beretzat, gelen eta komunen garbiketa bekarioek egin behar izaten zuten, eta beste hainbat lan ere bai. Gero seme-alabek "bekak" eskatu behar zituztela adierazi zietenean, izutu egin zen, ezin baitzuen izena entzun ere egin.</p>

## 6. Eskolan onenatarikoa

- **Erref:** EGB-073/009
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:17:48. **Bukatu:** 00:18:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak

**Laburpena:**

<p>Gordeta ditu eskolako boletinak eta koadernotxoak. Gramatika eta Kaligrafia asko ikasten zuten, 'redondilla', 'inglesa' eta 'g&oacute;tica' ikasmateriak.</p>

### Transkripzioa

-Hori izan zan Pilarrian. Ta gordeta dakadaz gaiñera hango boletiañak eta kuadernotxuak-eta danak gordeta dakadaz. Berrogeta bat, berrogeta bi, berrogeta hiru... "Primer año de la Victoria, Segundo año de la Victoria", dana... Oso..., billobari erakusten niozen gaiñera, Gramatika eta Kaligrafia guk itten gendun asko. Kaligrafia, gaiñera, hiru letra klase: letra inglesa, oker-okar inda, "redondilla" kontabilidadia eruateko, ta "gotika", dotoria. Han daude kuadernuetan. Hori, Historia, Historia Sagrada, Matematika, bueno, han ikasi genduna. Eta ataratzen naban bigarren, lelen..., hirugarren..., baiña zera, hoixe. Ni pentsatzen ba bixar edo etzi bankuren baten edo ofizinarene baten. Pentsatzen, zeatik eze beste batzuk hasi zian kolokatzen.

## 7. 13 urterekin eskolatik irten eta "pintxe" gisa fabrikara

- **Erref:** EGB-073/010
- **Iraupena:** 0:02:51. **Hasi:** 00:18:59. **Bukatu:** 00:21:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Erreminta-makinak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak

### Laburpena:

<p>Eskolan ondo zebilen, baina aita 13 urterekin lanera bidali zuen. Buzoa erosi zuen, eta jantzi zuenean, ze lotsa! Aranarenean hasi zen lanean "pintxe" gisa. Errekaduak egitea, ura ekartzea eta tailerra garbitzea ziren bere lanak.</p>

## 8. Sigman delineatzaile

- **Erref:** EGB-073/011
- **Iraupena:** 0:03:02. **Hasi:** 00:21:50. **Bukatu:** 00:24:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debarreneko lantegiak

### Laburpena:

Pintxe izatetik "aprendiz" izatera igaro zen hurrengo urtean. Eskoletan apuntatu zen trigonometria eta marrazkigintza ikasteko. Hamazazpi urterekin Sigmako bulego teknikorako hartu zuten delineatzaile gisa. Posta bidezko hainbat ikastaro egin zituen. Hamazazpi urtetik hogeita hamar urte arte ibili zen Sigman.

## 9. Sigmatik ACMEra

- **Erref:** EGB-073/012
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:24:52. **Bukatu:** 00:26:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Erreminta-makinak

**Laburpena:**

<p>ACMEra joateko deia jaso zuen. Deban beste lantegi bat martxan jartzea izan zen bere lehen lana. Hark indarra hartu zuenean beste proiektu batera pasatu zuten.</p>

**Transkripzioa**

-Eta orduan nun hartzen doten diar bat Amadeok, Amadeo Aizpitartek, ACMEra joateko. Ta baietz, nik baietz. Eta orduan joan nitzan hara, ta ipini zien Acmeko zentralian. Ta lelengo-lelengo lana ipiñi ziena zentral zan ACME Deba, Deban, taillarra sortu bihar zala. ACMEkin eta debar batzuekin, gero nere lagun haundixak izan dianak, Patxi ta, hamengo... Patxi Aldabaldetrek ta. Lelengo lana, haura martxan ipiñi. Haura martxan. Ta lelengo proiektuak in. Han in bihar zan produktua zian "Unidades autónomas" eta makina espezialak eta. Lelengo proiektuak in nittuanak hemen, armazoiak eta abar, ta haura martxan ipini. Ta orduan gero harek hartu zaban indarra, ipini zaben jerentia ipini zan eta orduan beste proiektu bat esan zien, taller auxiliarra.

**10. Prezisioko makinak egiteko proiektuan gerente**

- **Erref:** EGB-073/013
- **Iraupena:** 0:03:02. **Hasi:** 00:26:03. **Bukatu:** 00:29:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Erreminta-makinak

**Laburpena:**

ACMEk prezisioko makinak egiteko beste proiektu bat abiatu zuen eta Luis jarri zuen gerente. Genevara joan ziren makinak ikustera eta teknika berriak ikastera. Han ikasitako hainbat gauza beren lantegian aplikatu zituzten.

**11. Leku Ederren makina berezia**

- **Erref:** EGB-073/015
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:29:23. **Bukatu:** 00:30:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Erreminta-makinak

**Laburpena:**

<p>Gaur egun Leku Eder den tokian kokatu zuten Genevatik ekarritako makina berezia</p>

**Transkripzioa**

-Nun jarri zenduen lelengo aldiz makina hori?  
-Nun? Hamen Barrutianeko ortuak, Azpirineko ortuak, Azpirineko gaur eguneko etxe atzekaldian. Hor ortuak zauden, Azpirinekua, Barrutianekua... Ta lehenau-lehenau hor zauan etxe bat inda, honek igeltseruak, zela zan haura, oin Durangora joan zian harek. Bueno ba,

haura aprobetxau, hutsik zauan eta hantxe bertan bai.

-Makina berezi hori, zuk esan dozun moduan, kokatuta Plaza Txikixan eta Leku-Ederren.

-Bai-bai, hori-hori. Leku-Ederren, gaur egunian Leku-Eder dan hori. Hortxe-hortxe euki gendum, bai, hortxe euki gendun.

## 12. Enpresa zuzendaritzako titulua

- **Erref:** EGB-073/016
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:30:18. **Bukatu:** 00:33:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

### Laburpena:

Bera ez zen espezialista ezertan, baina gerentzian ibili zen gustura. Ikuspegi orokorra izatea gustatzen zaio, ez da konformatzen parte batekin. Zaragozan enpresa zuzendaritza ikasteko aukera eman zioten, eta bost urtean jardunez eta asteburuetan-eta ikasiz, lortu zuen titulua, duen bakarra

## 13. Arrasateko Udalerako azterketak

- **Erref:** EGB-073/017
- **Iraupena:** 0:04:56. **Hasi:** 00:33:18. **Bukatu:** 00:38:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Erreminta-makinak

### Laburpena:

Titulu eta ikasketa horiei esker aurkitu zuen hurrengo lana. 83an krisi gogorra etorri zen eta beste lan bat bilatu beharrean aurkitu zen. Arrasateko Udaleko gerentzia lan baterako aukeraketa prozesua nolakoa izan zen kontatzen du. Oso gogorra iruditu zitzaion lehen testa. Aurrez aurrekoa ondo prestatuta eraman zuen eta bera aukeratu zuten askoren artean. Hamabost urte egin zituen lan horretan.

## 14. Artea, Musika, Historia... zaletasunak

- **Erref:** EGB-073/018
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:38:14. **Bukatu:** 00:40:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Aisia » Kultura
- Aisia » Kultura » Musika

### Laburpena:

<p>Etengabe ikasten ari da Luis. Elgoibarko kultura ekintza guztietan dago. Artea, Musika, Historia... bere zaletasun nagusiak. Etxea liburuz beteta du. Hainbat entziklopedia. Orain Interneten topatzen du informazioa.</p>

### Transkripzioa

-Oin nahi dot zure zaletasunak, zure afiziuak. Oin esan dozu jerenterako ikasi zendula, baiña bizitza guztian ikasten ezagutu zaittut. Historiazalia zera, artezalia zera, irakurketa asko itten dezu. Elgoibarko kultur ekintza guztietara fijo-fijo Luis Mari Iriondo (....). Eta zaletasun haundi bat Historia eta Artea. (...).

-Nik oin artian euki dotena da, etxian beti andria protestaka, ez oin, baiña esan nahi dot gaztiauak giñanian, estanteriak ipiñi ta liburuak... Neria izan da... enziklopediak, enziklopediak... Esate baterako, "Enciclopedia del Arte", nik nakan gogo bat eukitzeko, ta han dakat. Ta gero Enciclopedia de la Música. Bueno, hantxe daude enziklopediak. Eta bat, haundixena, Enciclopedia Vasca, zela da, Auñamendi. Larogei bolumen, joe, hori izan da, estanterixa guztiak beteta, hamengua, Debakua, eta hau (dirua) ere asko, hamar mila pezeta kostatzen zan gitxi gora behra liburu bakutza. Baiña beti ere ikusi-ikusi eta hortan. Liburuak hoixe. Ta gaur egunian, inziso bat egingo dot, horrek danak han daude geldi-geldi-geldi ikutu barek. Pena ematen dit, e. Dana zela dakaten ordenadorian, dana, ta horrek larogei liburu horrek, hainbeste kostau dianak, zenbat bidar itten doten aprobia, juten naiz oin Interneten eta artikulo bera, mekauden, hamen daok, barren, debalde.

## 15. Irakurzaletasun handia gazte-gaztetatik

- **Erref:** EGB-073/019
- **Iraupena:** 0:03:06. **Hasi:** 00:40:26. **Bukatu:** 00:43:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea

### Laburpena:

Etxea erre zitzaien hogeitau urte zituela. Justu-justu salbatu zituen maite zituen liburuak eta paperak. Egunero irakurtzen du oherakoan gazte-gaztetatik. Beti irakurri du asko.

## 16. Ordenagailua, loteriarik onena

- **Erref:** EGB-073/020
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:43:32. **Bukatu:** 00:45:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Bestelako kontuak » Gaur egungo kontuak

### Laburpena:

<p>Ordenagailua izan da beretzat loteriarik handiena. Eta hori hasieran gorrotoa ziola. Jubilatuta gero, semeak oparitu zion. Kazetagunean egin zuen ikastaroa, han ikasi zuen erabiltzen eta orain hori barik ezin da bizi.</p>

### Transkripzioa

-Ordenadora izan da neretzako loteriarik haundixena. Eta gorrotua nion, e, gorrotua nien ordenadoreeri zeatik eze beti zela jerentzian egon naizen, beti administratibuak, ezta. Ta esaten nittuan datuak, ba "ordenadora ez dabil". Mekauben la ley, nik datuak bihar jittuat ba ointxe. Ta beti

ordenatoria, beti, nik gorrotua nakan ordenadoriari. Ez naban ondo ikusten, ta jubilauta gero, jubilau ta bost bat urtera semiak, fisikuak, esan zian: "Aita, zuretzako ordenatoria...", Bai, baiña... "Neuk ekarriko dotsut ordenadora bat. Ta itxuria bera dabillen enpresan ordenadora zarrak kendu eta bat ekarri zian. "Beittu, aita, gauza bat..." DVD asko nakazen, DVD historixakuak eta, DVD nakazen erositta, ta ikusi! Joe!, sartu ta plast! Hori bakarrikan. Ta gero hasi nitzan horrek klasifikatzen, baiña ez gehixao. Ta kasualidadia, nik, hori momentu horretan Kazetagunea sortu. Kasualidadia! Kazetagunea sortu danian, Elgoibarren ere bai. Ta jun giñan kursillora, ta jun giñan edadekuak Joseba Laparra ta Manolo Zabala ta ya edadeko jentia kursillora. Ez genkixen ezer, baiña esker kursilluari gero in nittuan beste batzuek, beste kursilluak ere bai, eta oiñ da, bueno-bueno, oin hori barik bizi ezin. Gauza edarra, edarra... Hor dago dana.

## 17. Testamentu Zaharrean dago pertsonari pasatu lekioken guztia

- **Erref:** EGB-073/021
- **Iraupena:** 0:03:28. **Hasi:** 00:45:22. **Bukatu:** 00:48:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa
- Bestelako kontuak » Historia orokorra

### Laburpena:

<p>National Geographic hartzen du hilero, historia sailekoa. Egipto eta Mesopotamia ditu gogokoen. Biblia asko maite du, Testamentu Zaharra, batik bat. Hango istorioak irakurrita txundituta geratzen zen. Dabid-en historia harrigarriaz. Munduaren konjuntoko ikuspegia ematen ei du Bibliak.</p>

## 18. Arkitektura barrokoa gogoko

- **Erref:** EGB-073/022
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 00:48:50. **Bukatu:** 00:52:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Beste adierazbide batzuk

### Laburpena:

Arkitektura, Pintura eta Eskultura, hiru sailetan banatuta du artea. Ordenagailua lehendabizi bete egiten du eta gero ikusi. Arkitekturan barrokoa gustatzen zaio asko. Innsbruck-eko elizak eragin zion zirrara.

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

*2026-04-03*

**CC-by-sa | Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com